

21/13 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Josu Badiola
Begoña Cabria
Ainara Ibañez
Aitor Idigoras
Mari Tere Ojanguren
Aitziber Oliban
Idoia Pujana
Lourdes Villardón
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2020ko abenduaren 15eko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **2021-22 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako kidegoetako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoko LPZk arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

EAEko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak lanpostuen zerrendak arautzen ditu II. tituluaren I. kapituluan, irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketari buruzkoan; zerrenda horien oinarritzko printzipioak adierazten ditu, baita zerrendak egiteko jarraitu beharreko prozedurak ere.

Parametro hauek identifikatzen dituzte dekretu honi erantsitako zerrendetan azaltzen diren lanpostuak: espezialitatea, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasuna. Hizkuntza-eskakizunak hizkuntza-ereduen arabera zehazten dira, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan (apirilaren 2ko EHAA) ezarritako proportziak beteta; dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak aldatu zuen (urtarrilaren 20ko EHAA), eta arautu egin zuen nola dekretu hori irakasleen lanpostuei. Helduen ikastetxeetako lanpostuei hizkuntza-eskakizunak jartzeko, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan ezarritako irizpideak jarraitu dira.

I. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 11 artikulua, 10 xedapen gehigarri, 2 azkenak eta 11 eranskin ditu.

1.etik 5.era bitarteko artikuluek ikastetxe mota desberdinetako Bigarren Hezkuntzako kidegoetako irakasleen lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen dituzte. Bigarren Hezkuntza, HHE, Hizkuntza Eskolak, Musika Kontserbatorioak eta Arte Eskolak I.tik V.era bitarteko eranskinetan daude.

6. artikulua Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetara atxikita dauden erlijio irakasleen LPZ jasotzen du, VI. Eranskinean zerrendatuta dagoena.

7. artikulua VII. Eranskinean azaltzen den Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako maisu-maistren kidegoaren LPZ onartzen du.

8. artikulua Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko (UHEI) LPZ onartzen du, eta 9. artikulua IX. Eranskinean azaltzen den Kirolene-Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoko LPZ.10. artikulua Dantzerti LPZ onartzen du.

11. artikulua Urrutiko Lanbide Heziketako ikastetxe integratua (ULHII) Hezkuntzako Euskal Institutuko (UHEI) LPZ onartzen du.

Lehen xedapen gehigarriak IES Urbi BHiko bi lanpostu banakatzen ditu, LHIK Bidebieta LHIIIn sartzen direnak.

2., 3., 4. eta 7. xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte.

6. xedapen gehigarria hizkuntz profilen derrigortasunari buruzkoa da.

8.ak lanpostuak hornitzeko prozedura erregulatzen du; 9.ak hizkuntz atzerritarraz irakasten diren espezialitateak arautzen ditu eta 10.ak zenbait postutara iristeko behar diren espezialitateak arautzen ditu. Hamaikagarrenak dio postu guztietan aurkeztu behar dela kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babes Juridikoaren Legearekin bat etorritik.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak dio noiz sartuko den indarrean Dekretua.

II. PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu honetan 2021-22 ikasturterako ikastetxe publikoetan jasotzen diren lanpostuen zerrendak 10.355 dira, aurreko ikasturtean baino 846 plaza gehiago.

Horietatik 9.674 Bigarren Hezkuntzako kidegoetakoak dira. Aurreko ikasturtean baino 888 gehiago, eta gainerako 681 (42 gutxiago) DBHko lehen zikloan irakasten duten maisu-maistren kidegokoak dira.

LPZ organiko honetan plaza gehien dituen kolektiboa Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen kidegoa da (791), eta, ondoren, Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoa.

Bigarren Hezkuntzako eta dekretuan jasotako beste kidego batzuetako LPZ organikoko plazak, ikastetxe motaren arabera. 2020-21 eta 2021-22 ikasturteak.

	2020-21	2021-22	Δ Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Katedradun eta Irakasle Kidegoak (BHI)	6.510	7.301	791
Lanbide Hezkuntzako Irakasle Teknikarien Kidegoa (BHI)	1.245	1.361	116
Irakaskuntza Ertainetako Inst. Teknikoetako Irakasle Kidegoa (BHI)	5	4	-1
HEOetako Katedradun eta Irakasle Kidegoak	302	304	2
Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasle Kidegoak	119	128	9
Arte Plastiko eta Diseinuko Katedradun eta Irakasle Kidegoak	12	28	16
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Lan Kontratudun Langileak	230	176	-54
HEOetako Lan Kontratudun Langileak	4	4	0
Gradu Ertain. Musika Kontserbatorioetako Lan Kontratadunak	17	18	1
Arte Eskoletako Lan Kontratudun Langileak	8	6	-2
Erljio Katolikoko Lan Kontratudun Langileak (BHI)	59	53	-6
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	170	182	12
Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuko langileak	53	53	0
Kirolene, Kirol Irakaskuntzen Zentroko langileak	14	14	0
Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Mailako Langileak Dantzerti	11	15	4
Urrutiko Lanbide Heziketaren Ikastetxe integratua	27	27	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	8.786	9.674	888
Maisu-maistren kidegoa	723	681	-42
2. Hezkuntzako eta beste batzuetako plantilla organikoak guztira	9.509	10.355	846

Bigarren Hezkuntzako kidegoak jomuga ikastetxeen arabera banatuz gero, ikus liteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilla organikoan 846 plaza gehiago daudela, Arte Eskola (14), HHE (12), Erdi Mailako Musika Kontserbatorioak (10), Dantzerti (4) eta HEO (2) eta gainerakoak berdindude.

Bigarren Hezkuntzako kidegoetako LPZ organikoetako plazen banakapena, jomuga zentroaren arabera.2020-21 eta 2021-22 ikasturteak.

	2020-21	2021-20	Azken urtea
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak era beste batzuk	8.049	8.895	846
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	170	182	12
Hizkuntza Eskola Ofizialak	306	308	2
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak	136	146	10
Arte Eskola	20	34	14
Urruneko Hezkuntzako Euskal Institutuko langileak	53	53	0
Kirolene, Kirol Irakaskuntzen Zentroko langileak	14	14	0
Arte Dramatiko eta Dantzako GMko Langileak Dantzerti	11	15	4
Urrutiko Lanbide Heziketaren Ikastetxe integratua	27	27	0
Bigarren Hezkuntzako kidegoak guztira	8.786	9.674	888

Plantillak euskalduntzeari dagokionez, 7,3 puntuko igoera izan da, eta plazen % 87,9k HE2 dute. DBHko maisu-maistren kidegoa (% 95,4) eta HHEko irakasleak (% 96,7) nabarmentzen dira. Dantzerti, Kirolene, LHII eta UHEIko irakasle guztiak HE2 dute. Erljiioiko irakasleek, berriz, HE2 % 98, 1.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako LPZ organikoetan 2HE duten plazen portzentajea, zentro motaren arabera.2020-21 eta 2021-22 ikasturteak.

Ikastetxe mota	2021-22			2020-21	Δ Azken urtea	
	HE2rekin	Guztira	HE2	2HE		
Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeak	Bigarren Hezkuntzako kidegoak eta beste batzuk	7.270	9.004	80,7%	79,0%	1,5
	Maisu-maistren kidegoa	650	681	95,4%	94,6%	0,8
Helduen Hezkuntzarako Ikastetxeak	176	182	96,7%	97,1%	-0,4	
Hizkuntza Eskola Ofizialak	264	308	85,7%	85,3%	0,4	
Gradu Ertaineko Musika Kontserbatorioak	116	156	74,4%	77,2%	-2,8	
Arte Eskola	29	34	85,3%	55,0%	30,3	
Guztira	8.409	9.674	87,9%	80,6%	7,3	

Kontuan hartzen badugu Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako (BHI) *funtzionamendu plantilla* osoa, ikusiko dugu, Hezkuntza Sailak emandako informazioaren arabera, Bigarren Hezkuntzan 339 irakasle gehiago dagoela.

Maisu-maistren plantillan, 38 plaza gutxiago dago. Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako plantilletan 331 plaza gehiago egongo dira aurtengo ikasturtean.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako funtzionamendu plantilla 2020-21an eta 2021-22an

	2020-21	2021-22	Azken urtea
BHko kidegoak eta ordainpeko langileak	9.220	9.559	339
Maisu-maistren kidegoa	785	747	-38
Funtzionamendu plantilla guztira	10.005	10.306	301

Unitateen eta ikasleen kopuruak gora egin du etapa guztietan, LHn izan ezik, non 40 unitate gehiago dauden arren 195 ikasle gutxiago dauden. Guztira 69 unitate daude eta aurreko ikasturtean baino 268 ikasle gehiago.

Irakasleen/ikasgelaren batez besteko ratioa mantendu egin da, eta ikasleen/irakasleen eta ikasleen/ikasgelaren ratioa pixka bat jaitsi da

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako unitateen eta ikasleen bilakaera etapaka. 2020-20 eta 2021-22 ikasturteetako aurre-matrikula.

		2020-21	2021-22	Δ Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak (aurre-matrikula)	DBH	2.010	2.030	20	1,0%
	Batxilergoa	618	623	5	0,8%
	Lanbide Heziketa (EZ, GZ eta OLH)*	1.149	1.189	40	3,5%
	Hezkuntza Berezia eta AAT, gela itxiak	105	109	4	3,8%
	Unitateak guztira	3.882	3.951	69	1,8%
Ikasleak (aurre-matrikula)	DBH	42.539	42.821	282	0,7%
	Batxilergoa	15.264	15.442	178	1,2%
	Lanbide Heziketa (GZ, EZ eta OLH) *	23.062	22.867	-195	-0,8%
	Hezkuntza Berezia eta AAT, gela itxiak	673	676	3	0,4%
	Ikasleak guztira	81.538	81.806	268	0,3%
Irakasleak: funtzionamendu plantillak	10.005	10.306	301		
Irakasle / ikasgela ratioa	2,6	2,6	0		
Ikasle / ikasgela ratioa	21,0	20,7	-0,3		
Ikasle / irakasle ratioa	8,1	7,9	-0,2		

* Lehen aldiz sartu dira LHko espezializazio-ikastaroen datuak (12 unitate eta 133 ikasle)

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektuko datuen banakatzean ikus daiteke Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetako (BHI) plantilla organikoak nabarmen egin du gora 846 plazatan.

Funtzionamendu errealeko plantillei dagokienez, 301 plaza gehiago daude; aurrematrikula-datuen arabera, 268 ikasle gehiago eta 69 gela gehiago daude; horrek esan nahi du ikasle/irakasle eta ikasle/gela ratioa jaitsi egin dela eta irakasle/gela ratioa mantendu egin dela.

Kontseiluak uste du ratioak, oro har, erreferentziazko araudiak ezarritakoaren azpitik mantendu direla.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2021eko abenduaren 15ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURU JAUNA